


Patxi Ormazabal Galdos

A maila • 1 saria

2003. urteko urriaren 11n jaio nintzen
Beraz gaur 16 urte ditut
Jaiotako egunetik Gabirian bizi naiz
Etxeberritxo izeneko Baserri batean bizi naiz
Ez naiz bertso eskolan denbora luzez ibili, soilik 7 urte
neuzkala 2 urte egin nituen bertan. Geroztik soilik bertsoak
entzun eta egin ibiltzen naiz inongo bertso eskolara joan gabe.



IRABAZLEA

Bertso proba hontara
etorri naiz sarri
Denetan gelditu naiz
sari gabe larri
Baina oraingo hontan
hori dut igarri
Baietz nik aurtengoan
etxera ekarri

Irakasle bikain bat
izan dut bertsotan
Berarekin jardun naiz
ikasi asmotan
Akatsak ateratzen
zizkidan askotan
Berari esker dauzkat
errimak ahotan

Bertsotan ikasteko
zenbait pazientzi
Litrotan kontatuta
Berrogeibat ontzi
Tarteka esaldiak
mauka motxen jantzi
Eta irakasleak
Belaxe eantzi

Bertsoa gauza ederra
dela da jakina
Hori ez esateak
egiten du mina
Denok egin dezagun
ikas alegina
Jada badaukazue
Gabon zeregina
(Gabonan aurretik eginda daude bertsoak)

Bertsoekin daukagu
sekulako drama
Desagertzen ari da
pixkana-pixkana
Heldu ta tira dezaun
fuerte guregana
Euskeran honek baidu
sekulako zama

Denok jakinez gero
bertsoak kantatzen
Ez gineke eongo
euskera bultzatzen
Izane orain gaude
gasteleran atzen
Saia gaitezen orain
aurrera pasatzen